

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Fruizko Udala****Kirol eta kultur ekintzak edota zerbitzuak emateagatiko prezio publikoak arautzen dituen udal ordenantza aldaketaren behin-betiko onarpena.**

Fruizko udalbatzak, 2017ko otsailaren 1ean egindako bilkuran, bertaratutakoek aho batez erabaki zuten kirol eta kultur ekintzak edota zerbitzuak emateagatiko prezio publikoak arautzen dituen udal ordenantza aldaketa onartzea.

Interesdunen audientzia eta jendaurreko epealdia igaro ondoren eta erreklamaziorik egon ez denez, apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 49. artikuluari jarraiki, ordenantza behin-betiko onartutzat jotzen da.

7/1985 Legeko 70.2 artikuluekin bat etorriz, ordenantzaren testu osoa argitara ematen da, herritar oro horren jakitun egon dadin.

Fruizen, 2017ko apirilaren 3an.— Alkatea, Ainara Zelaia

KIROL ETA KULTUR EKINTZAK EDOTA ZERBITZUAK EMOTEAGATIKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA**1. artikulua**

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen 9/2005 Foru Arauaren 44-50 atalei jarraiki, I. Eranskineko tarifetan zehazten diren jarduerak burutu edo zerbitzuak eskaintzeagatik prezio publikoak ezarri eta ordainaraziko dira, Ordenantza honetako arauari jarraituz, haiek hauen barne direlarik.

2. artikulua

Ordenantza udalerrri guztian ezarriko da.

3. artikulua

Ordenantza honetan araututako prezio publikoak, zerbitzu edo jardueren onuradunek ordainduko dituzte.

4. artikulua

Ordenantza honetan arauturiko prezio publikoengatik tarifak I. Eranskinean datozenak dira.

5. artikulua

Ordainarazi daitezkeen diru-kopuruak, eskatu edota buruturiko zerbitzu edo jarduera bakoitzeko ordainduko dira eta dagokien epigrafeetan bakoitzarentzat adierazitako kopuruak ezingo dira murriztu.

6. artikulua

Ordenantza honetan adierazten diren zerbitzuak eskaintzeko edo udal jarduerak burutzeko, aldez aurretik eskatu beharko zaio Udal Administrazioari horiek eskaini edo burutzeko baimena. Zerbitzu edo jarduera horiek, nolahi ere, Ordenantza honetan arauturiko prezio publikoak ordaintzen badira hartuko dira emandakotzat, eta hauen epea luzatu ondoren prezio publikoa ordaintzen ez bada, zerbitzua eskaintzeko edo jarduera burutzeko aukera, besterik gabe, galarazi egingo da.

7. artikulua

Ordenantza honetan arauturiko prezio publikoak ordaindu beharra, zerbitzua eskaintzen edo jarduera burutzen hasten denean sortuko da.



Hala ere, zerbitzuen eskaintzea edo jardueren burutzea dagoeneko onetsi eta luzatu bada, zerga ordaindu beharra, dagokien tarifetan adierazitako denboraldi natural bakoitzaren aurreneko egunean sortuko da.

8. artikulua

Prezio publikoa aurretik ordainduko da, hurrengo arauen arabera:

a) Zerbitzu eskaintza edo jarduera-burutzapenen kasuan, udal kutxetan zuzenean gordailu bat sartuz, zerbitzua eskaini edo jarduera burutu aurretik, adierazitako gutxieneko kopurukoa.

b) Beren izaeragatik alde aurreko gordailua jartzeko aukera ematen ez duten zerbitzu-eskaintza edo jarduera-burutzapenen kasuan, Administrazioak dagokion faktura aurkezten duenean.

c) Urtez urteko zerbitzu-eskaintze edo jarduera-burutzapenen kasuan, horiek prezio publikoen matrikuletan sartu ondoren, urte naturalen arabera.

Horrez gain, ordainketa bankuan helbideratu ahal izango da, betiere Administrazioak ordainketa sistema modu hori onartu badu.

9. artikulua

1. Ordainketa egin behar duenari ez dagozkion zergatiengatik jarduera ez denean egiten, dagokion zenbatekoa bueltatuko zaio.

2. Era berean, ordainketak hileru, hiruhileru, seihileru eta abar egin behar direnean, kontratatutako jarduera edo zerbitzua dagokion aldi naturalaren mugaeguna baino lehen amaitzen bada, dagokion zenbatekoa banatu eta gutxituko da.

3. Dagokion aldi naturala baino lehen egindako baja boluntarioa denean, bete ez den zerbitzu/jardueraren aldiaren zenbatekoa bakarrik itzuliko da, behar bezala egiaztatutako zergati mediku edo ezinbesteko kasuetan. Era berean, hurrengo aldiari (hilabete, hiruhilabete edo dagokion aldiari) eragina izango duten bajak administrazioan jakinarazi beharko dira, baja hasiko den aldiaren hasiera baino 10 egun arinago. Bestela, hurrengo aldiari dagokion zenbatekoa gutziz sortuko da.

4. Dena dela, administrazioak jarduera edo zerbitzua bertan behera uzteko eskubidea du, baldin eta gutxienez 8 pertsona ez badira apuntatzen edo dagokion zerbitzua edo jarduerarekin jarraitzeko ezintasuna dakarten bestelako arrazoiak badira.

10. artikulua

Prezio publiko hauengatik zorrak premiamenduzko prozedura administratiboa erabiliz ordainarazi ahal izango dira.

11. artikulua

Ordenantza honetan arautzen den Prezio Publikoaren kitapen, bilketa eta ikuskatzeari dagokion gutzian, Zergakiko Foru Arau Orokorrean aurreikusitakoa erabiliko da.

12. artikulua

Ordenantza honetan azaldutako prezio guztiek BEZ barne dute, salbu kontrakoa adierazten bada.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau indarrean sartuko da haren behin-betiko onarpena eta testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 15 lanegun igaro ondoren.

**I. ERANSKINA
KIROL EKINTZAK****1. 3. adineko gimnasia**

Prezioak pertsona eta hiruhilabete natural bakoitzeko:



- a) Erroldatuak: 42,00 euro.
- b) Ez erroldatuak: 42,00 euro.
- c) UBK txartela: 42,00 euro.

2. Aerobik eta Pilates

Prezioak pertsona eta hiruhilabeteko natural bakoitzeko:

- a) Erroldatuak: 90,00 euro.
- b) Ez erroldatuak: 108,00 euro.
- c) UBK txartela: 90,00 euro.

3. Yoga

Prezioak pertsona eta hiruhilabeteko natural bakoitzeko:

- a) Erroldatuak: 30,00 euro.
- b) Ez erroldatuak: 36,00 euro.
- c) UBK txartela: 30,00 euro.

4. Gimnasia Hipopresiva

Prezioak pertsona eta hiruhilabeteko natural bakoitzeko:

- a) Erroldatuak: 60,00 euro.
- b) Ez erroldatuak: 78,00 euro.
- c) UBK txartela: 60,00 euro.

KULTURA ETA EUSKARA EKINTZAK**1. Udalekuak**

Prezioak ume eta hilabete bakoitzeko (4-12 urtekoak):

- a) Erroldatuak: 90,00 euro.
- b) Ez erroldatuak: 165,00 euro.
- c) UBK txartela: 90,00 euro.
- d) Ez erroldatuak herriarekiko loturarekin*: 100,00 euro.

* Atal honi dagozkion ondorioak direla eta, erroldatuzat hartuko dira jarduera hasi baino 2 hilabete arinago udalerrian erroldatuta dauden umeak.

Erroldatuta egon ezean, baina gurasoak, aitite-amomak edo guraso aginte, zaindaritza zein kuratela-dunak udalerrian bizi badira udalerriarekiko lotura daukatela kontuan hartuko da. Era berean, gurasoek (aita edo ama) Fruizen lan eginez gero, baldintza hau betetzat joko da.

2. Umeentzako igeriketa ikastaroak

Prezioak ume eta ikastaro bakoitzeko (hil. 1):

- a) Erroldatuak: 25,00 euro.
- b) Ez erroldatuak: 31,00 euro.
- c) UBK txartela: 25,00 euro.

3. Aretoko dantzak

Prezioak pertsona eta hilabete bakoitzeko:

- a) Erroldatuak: 10,00 euro.
- b) Ez erroldatuak: 16,00 euro.
- c) UBK txartela: 10,00 euro.



4. Aquagym

Prezioak pertsona eta hilabete bakoitzeko:

- a) Erroldatuak: 20,00 euro.
- b) Ez erroldatuak: 26,00 euro.
- c) UBK txartela: 20,00 euro.